

## Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

### BISITAK ETA IBILALDIAK

#### [Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu](#)

##### **Museoak eta bildumak**

**2018/04/20 - 2018/10/20**

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmagarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatu badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

#### [Katedraleko klaustroaren lana](#)

##### **Iruñeko katedrala**

**10.00etan, 11.00etan, 12.00etan**

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

### DANTZA

#### [El Silencio de las Flores](#)

##### **Barañaingo auditorioa**

**Larunbata / 20.00etan**

"El Silencio de las Flores" dantza ikuskizun bat da, Jose Lainezi eta Concha Martinezi 2017an emandako Vianako Printzea saria zabaltzeko sortua.

### ERAKUSKETAK

#### [La Gloriosa iraultzaren \(1868\) 150. urteurrena](#)

##### **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia**

**2018/09/01 - 2018/09/30**

Erakusketa hau "La Gloriosa-ren 150. urteurrena (1868)" iraultza famatu horren omenaldia da eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusian egongo da ikusgai irailean zehar. Sarrera dohainik izango da eta honako ordutegi honetan egongo da zabalik: astelehenean ostiralera goizeko 10etatik arratsaldeko ordu 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara.

### [Macla, mamua, bismuto, vicario](#)

#### **Oteiza Museoak**

**2018/07/27 - 2018/11/30**

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza. Lankideak: "la Caixa" Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala eta Caniche Argitaletxea.

Oteiza Museoak "Macla, mamua, bismuto, vicario" erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berariaz ondu dute Altzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentzioa izango da.

### [José Latova. Argazkigintza arkeologikoan 40 urtez](#)

#### **Nafarroako Museoa**

**2018/06/13 - 2018/09/23**

Irailaren 23ra arte egongo da ikusgai argazkilari honen erakusketa zabala, 100 bideo eta argazkiz osatutakoa. Proposamen honek, argazkigintza arkeologikoaren maisu handi hau omentzen du.

José Latovak berak hitzaldi bat eskainiko du gaur bertan, 19:30tan eta Nafarroako Museoa.

Esan bezala, erakusketak Latovaren lana zeharkatzen du, Kultura Ministerioko Arkeologia sailaren zuzendariordea izaten hasi zenetik, bertan argazkilari bezala aritu zen 1976 eta 1989 bitartean, gaur egun arte. Era berean, ezin ahaztu, Latova estatu mailako lan arkeologiko nagusietan aritu izan dela.

### [Arma isilak gerra lasaietarako](#)

#### **Oteiza Museoak**

**2018/06/01 - 2018/09/30**

Oteiza Museoak berreskuratu egin du Interpretazioak programa, Imanol Marrodan artistak Altzutzako zentroan egin duen "Arma isilak gerra lasaietarako" erakusketa-proiektuarekin.

Oteizaren obrarekiko topaketa-gune bat sortu nahi duen programako hamargarren interbentzioa da jada. Programa bera museoko bigarren solairuan garatzen da, erakusketa iraunkorrekiko solasean, eta Oteiza Museoak Eguesibarko Udalarekiko elkarlanean produzitu erakusketa-proiektu hau ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean garatuko da.

## **KONFERENTZIAK**

### [Genero arkeologia](#)

#### **Nafarroako Museoa (Areto Nagusia)**

**Asteazkena / 19.30etan**

"Arkeologia feminista: zergatik aldatu paradigma".

María Cruz Berrocal. Geografia eta Historian doktorea Kantabriako Unibertsitatea, Santander.

### [Lelisir damore de Donizetti](#)

#### **Baluarte (Gola Aretoa)**

Osteguna / 19.00etan. Xabier Armendarizen hitzaldia Donizettiren L'elisir d'amore

operari buruz

Larunbata / 19.00etan. Luis Miguel Alonsoren hitzaldia Donizettiren L'elisir d'amore operari buruz

## KONTZERTUAK

### [Zangotzako Nora Abesbatza](#)

**Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (Areto Nagusia)**

**Ostirala /19.00etan**

Proposamena musu-truk izango eta adin guztietako ikusleei zuzenduta dago. Nora Abesbatzaren emanaldi hau Nafarroako Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentuak eta Nafarroako Abesbatzen Elkartek sinatu duten akordio baten emaitza da. Hitzarmen honen bidez Nafarroako abesbatzek Nafarroako Musika eta Arte Eszenikoen Artxiboan pilatu duten ondare dokumentala mantentzeko ahalegina bultzatu nahi da.

### [Tot organa tot cymbala](#)

**Organo Musika Nafarroan**

**Santa Fe. Urraúl Alto / Laureaba /18.00etan**

**Erriberriko Paradorea / Igandea / 19.00etan**

Erdi Aroko musika erlijiosoa eta profanoa, organo garraiagarriko eta perkusioko tresnetarako.

Cristina Alís Raurich, Erdi Aroko organo garraigarria

Mauricio Molina, kanpaiak, adufeak, tabulak, panderoak, musu-gitarra

ELaguntzaileak: Organoaren Lagunen Nafarroako Elkartea, Erriberriko

Udala, Erriberriko Paradorea

## TAILERRAK

### [Ongietorri ipuinetara](#)

**Nafarroako Liburutegia**

**Asteazkena / 18.00etan**

Asteazkenero, gurasoek eta beste boluntario batzuek ipuinak irakurtzen dizkiete haurrei gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

### [Habitación: Barruko landareak](#)

**Huarte zentroa**

**2018/09/07 - 2018/10/14**

Bi eskultoreren arteko lankidetzak botanika arloko fenomeno baten antza izan lezake.

### [Toisoiaren ebasketa, escape room-ean](#)

**karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)**

**2018/05/18 - 2018/10/14**

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren kariatara eginen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.

## ZINEMA

### [Ainhoa, yo no soy esa](#)

**Nafarroako Filmoteka**

**Asteartea / 20.00etan**

“Ainhoa, yo no soy esa” 90ko hamarkadaren Espainiako historia ofizialaren kronika alternatiboa da ere, emakume baten egunerokoaren bidez kontatua.

2018ko Malagako Zinema Jaialdian, Biznaga de Plata Film Luze Dokumental onena saria jaso zuen. Epaimahaiaren Mentzio Berezia eta Soinu onena saria jaso zuen 2018ko DocumentaMadrid jaialdian.

Zuzendaritza eta gidoia: Carolina Astudillo Muñoz

### [Amets-egunak](#)

**Nafarroako Filmoteka**

**Asteazkena / 20.00etan**

Paresh (Prasenjit Chatterjee), Swapner Din-eko protagonistak, ezin da aztertu gabeko eremuetara iritsi. Bere kasuan, estatu osoan zehar jeep ofizial batekin bidaiatzea bizirik mantentzeko kontua da, egitera behartuta dagoen negozioa, alegia.

Zuzendaritza eta gidoia: Buddhadev Dasgupta

### [Las lindas](#)

**Nafarroako Filmoteka**

**Osteguna / 20.00etan**

24 urteko Melisak bere lagunekin haurtzaroko eta nerabegaroko esperientziei buruz mintzatzen da, euren bizitzetan emakume izatearen ondorio ezberdinetan sakonduz.

### [Bombshell: The Hedy Lamarr Story](#)

**Nafarroako Filmoteka**

**Ostirala / 20.00etan**

1940ko hamarkadan munduko emakumerik ederrena bezala estimatua, aktorea mitiko hau asmatzaile bikaina ere izan zen. Hedy Lamarr, Hollywood klasikoaren izarra, bere laborategian sartuta igarotzen zituen gauak, armadarentzako patenteak garatzen, eta nazien kontrako borrokan armada aliatua lagundu zuen komunikazio proiektu sekretu bat ere asmatu zuen.

Zuzendaritza eta gidoia: Alexandra Dean.